urtarrila • enero 2022

AZKOITIA Udala

Azkoitiko Udal Aldizkaria

#77

KONTZEJUPETIK

Elkarrizketa

Javier Blazquez, Urolako Industrialdeko gerentearekin solasean

06

Zerbitzu berria

Adinekoentzat Eguneko Arreta Zerbitzua, martxa onean

08

Argiteria

Azkoitia, aurrezte energetikoaren bidean LED argiekin

14

Emakumezkoen langabezia tasa lehendabizikoz %10etik jaitsi da

Izarraitz Lanbide Heziketako mekanizazio graduko ikasleak

TRAS MESES DE EVOLUCIÓN POSITIVA, EL ÍNDICE DE DESEMPLEO DE AZKOITIA SE SITÚA EN 8,1%

En hombres, el índice de desempleo de Azkoitia es del 6,8% y en mujeres del 9,6%.

Iraurgi Berritzen osatzen duten Udalek duela bost urte enpleguaren aldeko apustu argia eta sendoa egitea erabaki zuten, horretarako eskura zituzten baliabideak erabilita. Bost urteren ondoren, langabeziaren bilakaerak emaitza positiboak eman ditu.

Azkoitian urtebetean %12 jaitsi da langabetu kopurua. 2020ko abenduan 533 langabetu zeuden eta 2021ean, hilabete berean, 469 pertsona zeuden guztira langabezian. "Azken hilabeteetan, Gipuzkoan eta Euskadin baina zertxobait gehiago jaitsi da langabetu kopurua bailaran eta Azkoitian", dio Iraurgi Berritzenen Enpresa eta Enplegu koordinatzaile Itziar Abarisketak.

Azken hilabeteetan eman den bilakaera onari esker Azkoitian gizonezkoen langabezia indizea %6,8an kokatu da. "Emakumeen langabezia indizeak ere bilakaera ona izan duen arren, gizonezkoena baina 3 puntu inguru handiagoa da oraindik eta emakumeen lan munduratzean lan egin beharra islatzen du" Itziar Abarisketaren esanetan.

2016an, besteak beste, www.urolanprest.eus ataria jarri zen martxan, bailarako lan eta formazio eskaintzak bateratzen dituen webgunea. Helburua zen, ez bakarrik informazio atari bat sortzea, baizik eta horren atzean dauden eragile guztien arteko koordinazioa sustatzea.

Horretaz gain, Lanbidek homologatutako Enplegu eta Orientazio Zentroa kudeatzen du Iraurgi Berritzenek eta 2016tik hona zerbitzua urte osoan eskaintzen da, Lanbidez gain, Azkoitiko eta Azpeitiko Udalen finantzazioari esker. Aurten, Enplegu eta Orientazio Zentroak eskualdeko 1.200 erabiltzailetatik gora hartatu ditu eta 355 lan eskaintza kudeatu ditu, haietatik 165 industria arlokoak.

Azkoitian urtebetean **%12 jaitsi** da zenbatutako langabetu kopurua. 2020ko abenduan **533 langabetu** zeuden; 2021ean, hilabete berean, **64 gutxiago**.

—

Iraurgi Berritzenen Enplegu eta Orientazio zentroak eskualdeko **1.200 erabiltzailetatik gora** hartatu ditu 2021ean, eta **355 enplegu eskaintza** kudeatu ditu, hauetatik **165 industria arlokoak.**

—

2021ean, lan munduratze programetan **101 lagunek** hartu dute parte eta horietatik **88 pertsona** laneratu dira, besteak beste, Hazilan, Bidelan, Lehen Aukera edo praktiketarako programen bidez.

"Langabeziaren bilakaera luparekin aztertzen dugu eta langabetuen profilen araberako formazio eskaintza garatzen saiatzen gara", dio Iraurgi Berritzenen Enpresa eta Enplegu koordinatzaile Itziar Abarisketak. 2021ean, lan munduratze programa ezberdinetan 101 lagunek hartu dute parte eta horietatik 88 pertsona laneratu dira, besteak beste, Hazilan, Bidelan, Lehen Aukera edo praktiketarako programen bidez.

Ikastetxeekin eta bereziki, Izarraitz Lanbide Heziketarekin, elkarlan estuan ari da Iraurgi Berritzen. Bi profiletan jarri du fokua: goi mailako ikasketak dituzten gazteetan eta oso oinarrizko ikasketak dituzten gizon eta emakume langabetuetan. Lehenengo taldeari bailarako enpresetan praktikak eta karrera amaierako proiektuak egiteko aukera ahalbidetzen saiatzen da Iraurgi Berritzen. Bigarrengo taldeari zuzenduta, lanbide heziketako zikloen eta ikastaro eskaintza zabaltzen esfortzu handia egin da azken urteetan, betiere, enpresek behar dituzten profilak kontuan hartuz. Mendekotasun egoeren dauden Pertsonei Arreta, Mekatronika edo Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena zikloak helburu horrekin ezarri dira Izarraitz Lanbide Heziketan. Baita mekanika edo soldadura ikastaroak ere. Halaber, Iraurgi Berritzenetik profesionaltasun ziurtagiriak eta lan-esperientziaren akreditazioak sustatu dira.

Kontzejupetik

Javier Zubizarreta

Azkoitiko alkatea

GURE AMAK ETA AMAMAK

Urte luzeetan zehar familia aurrera ateratzeko euren lan ibilbidea sakrifikatzea tokatu zaien amak eta amamak omenduz hasi nahi dut 2022a. Haien magalean hazi izan gara, aukeran ze bizitza mota nahiko ote zuten sekula galdetu gabe. Ezkontzean lana uzten zuten; garbitzera, kozinatzera eta titia ematera predestinatuta, denen babesa izatera, trukean ezer eskatu gabe. Ezer gutxirekin mirariak egiten zituzten.

Emakumearen laneratzea iraultza handia izan da. Alabaina, gizonezkoa baino zigortuagoa izan da beti. Emakumezkoen langabezia tasa beti gizonezkoenaren gainetik egon da. Soldatak, berriz, beti azpitik. Baina lehendabizikoz emakumeen desenplegua %10etik behera kokatu da. Sekulako lorpena da eta nik ez dut kasualitateetan sinisten.

Urteak daramatzagu emakume langabetuen profilak aztertzen irtenbidea eman ahal izateko, batetik formazioa eskainiz eta bestetik, emakumeen lan ibilbidea bideratzeko dauden proiektu eta programak gauzatuz.

Zorionak, zailtasun guztien gainetik lan merkatura sartzea lortu duzuen emakume guztioi. Eta hau idazten ari naizen bitartean, neure buruari galdetzen diot ea ez ote ditugun galdu gure amek eta amamek, sofistikazio gutxirekin, esnetan bustitako ogi-zopen bueltan erakutsitako balio haiek.

Balio xumeak, gogoratzeko errazak, behar-beharrezkoak bizitza honetan. Zenbaitek haur parke bati su emanda kiskali nahi dituen balioak, alegia.

Batzuentzat ez dago debekatutako norabiderik, ez pasatzen uzteko beharrik, ez stop-ik.

Batzuek azeleratzen jarraitzen dute, frenorik gabe, ezinbestean, behea jotzera eramaten duen egoerarekin apurtu ezinik. Aholku onen aurrean, belarriak tapatzen dituzte, eta horma beraren kontra jo dutenen aurrean, begiak itxi.

NUESTRAS MADRES Y ABUELAS

Quiero estrenar el año 2022 con un homenaje a todas las madres y abuelas que durante décadas y décadas han sacrificado su vida profesional para atender a la familia. Nos hemos criado en sus regazos sin preguntarles qué vida hubieran elegido. Ellas, al casarse, dejaban su trabajo, predestinadas a lavar, a cocinar y a amamantar; a ser siempre el cobijo de todo y de todos, sin pedir nunca nada a cambio. Hacían milagros con los pocos recursos que tenían.

La incorporación de la mujer al mercado laboral fue una revolución. Sin embargo, siempre ha estado mucho más castigada que el hombre. La tasa de desempleo femenino ha sido siempre mayor que la de los hombres, mientras que los sueldos siempre han sido inferiores. Pero por primera vez, el desempleo femenino ha bajado del 10%. Es un gran logro y no creo en las casualidades.

Llevamos años analizando el perfil del desempleo femenino para buscar soluciones a través de una oferta formativa adaptada y de diversos proyectos y programas diseñados para encaminar su trayectoria profesional.

Felicidades a todas esas mujeres que, superando todas las dificultades, han logrado incorporarse al mercado laboral. Y mientras escribo esto no puedo evitar preguntarme si no estamos perdiendo como sociedad los valores que nos supieron transmitir nuestras madres y abuelas sin mucha más evidencia que la acumulada alrededor de un tazón de leche con migas de pan.

Valores sencillos, fáciles de recordar y que lo son todo en la vida. Valores que alguno o algunos quieren calcinar prendiendo fuego a un parque infantil.

Para algunos no existe la dirección prohibida, ni el ceda el paso, ni siquiera el stop. Algunas personas siguen acelerando, viven sin freno y dejándose llevar por circunstancias adversas que les lleva a estrellarse inevitablemente. Cierran los oídos ante los buenos consejos, y los ojos ante otros que se han estrellado antes contra el mismo muro.

“SUSPERTZE EKONOMIKOA ARGI IKUSI DA, HALERE ENPRESEK ZAILTASUNAK DITUZTE PLANIFIKATZEKO”

Itziar Abarisketa

Iraurgi Berritzenen Enpresa eta Enplegu koordinatzailea

• • • •

Bailarako aktibitate ekonomikoa eta enplegua sustatzeko, elkarlana izan da Iraurgi Berritzenen giltzarri nagusia. Aterkipe eta norabide berean lanean dihardute udal erakundeek, enpresek eta ikastetxeek. Indarrak batuta errazagoa da egungo erronkei aurre egitea, bakoitzak bere aldetik baino. Hori pandemiak ondo agerian utzi du. Horren adibide da Enpresa Gunea, gainerako lantalde teknikoekin batera. Enpresa Gunea sektore eta tamaina ezberdinetako 10 enpresek osatzen dute.

Zein da Enpresa Gunearen egitekoa?

Enpresen ordezkaritza da. Hartu-eman jarraia eta konfiantzazkoa daukagu eta Enpresa Gunearekin kontrastatzen ditugu eskualde mailan garatu beharreko lan lerroak eta ekimenak. Helburu nagusia enpresei lehiakorrak izaten laguntzea da.

Eta nola egiten da hori?

Enpresen beharretatik abiatuta proiektu ezberdinak lantzen ditugu. Gure datu-basean 127 enpresa ditugu, eta horietatik 75 proiektu ezberdinetan parte hartzen ari dira. Batetik, lan-eskaintzen eta dirulaguntzen kudeaketa eskaintzen diegu, eta bestetik, elkarrekin identifikatutako behar amankomunei erantzuteko sortzen ditugun proiektuetan parte hartzeko aukera ematen diegu enpresei. Hor lantzen ditugu, besteak beste, digitalizazioa, estrategia, prozesuen optimizazioa edota talentuaren kudeaketa.

Zeintzuk dira gaur egun enpresek dituzten arazo edo erronka nagusiak?

Azken hilabeteetan suspertze ekonomikoa egiaztatu da eta aurreikusten dute, gainera, lanpostuak mantentzea edo gehitzea. Kezketako bat da balore katean bezeroek zer joera izango duten. Hemen makina-erremintaren, automobilgintzaren edota aeronautikaren menpe gaude eta ziurgabetasun handia dago sektore horietan. Salmentei dagokienez lasai daude enpresak zeren eskari-bolumena mantendu egiten da, baina aurrera begira planifikatzeko zailtasunak dituzte. Ikusten ari garen prezioen igoerarekin eta lehengaien eskasiarekin egoera konplikatu egin da.

Eta barne mailan?

Barne mailan, berrikuntza teknologikoa da erronka nagusia. Digitalizazioa prozesu ezberdinetan sartzeko beharra dute. 10 enpresei egingo zaie diagnostikoa. Horretaz gain, barne antolaketari begira, kultura aldaketa handia ari da ematen pertsonen kudeaketaren inguruan. Mondragon Unibertsitatearekin pertsonen eta talentuaren kudeaketa lantzeko enpresen lantalde berria osatu da Foru Aldundiaren finantziazioarekin.

Talentuak ihes egiten duelako?

Enpresek sekulako arazoak dituzte profil kualifikatuak lortzeko. Hemengo enpresek garrantzia handia ematen die bertako langileak izateari, baina ezinbestekoa da lantzea enpresa barruko talentua, errekonozimendua, parte-hartzea... Eta horrekin batera aztertu behar da bailarak berak zer duen eskaintzeko hona lanera datorrenari. Hor eskualde marka landu behar da eta honen inguruan ari gara lanean eragile desberdinekin elkarlanean.

Langabeziaren bilakaera Urola Erdian, sektore ekonomikoen arabera



Langabetu kopuruaren bilakaera Urola Erdian, generoaren arabera



Langabetu kopuruaren bilakaera Urola Erdian, ikasketa mailaren arabera



ENPRESA GUNEA INDARGUNE GARRANTZITSUA

Aitzol Alberdi
Alberdi Mekanizatuak

Jose Antonio Sudupe
Elkarmedia

Ze egoeratan aurkitzen dira enpresak pandemia garaian?

Alberdi: Aktibitate ekonomikoa maila onean mantentzen ari da oraingoz, eta merkatu joera makina erramintan ona izaten ari da. Aurrera begira kezka nagusia hornidura arazoak dira zenbait konponentetan eta orokorrean, prezioen igoera.

Elkarmedia: Globalizazioaren mende gaudela erakutsi digu pandemiak eta aldaketak daude. Zerbitzuak gero eta gehiago bertatik bertara emateko beharra eta gaitasuna izan behar dela erakutsi digu.

Enpresa Gunean parte hart zeak ze ekarpen egiten die enpresei?

Elkarmedia: IB Enpresa Gunean parte hartzeak aukera ematen digu, bailarako estrategian parte hartzeko. Eskualdeko enpresen arteko harreman gune inportantea da guretzat, non ikasketa prozesuak, debateak izaten ditugun. Enpresa handiak zein txikiak gaude eta elkar zaintzeko eta indartzeko aukera ematen digu.

Alberdi: IBen ekarpena enpresei garrantzitsua da hiru ikuspegitatik: pertsonalki ,enpresa moduan, eta globalki bailara bezala.

Enpresek IBen banakako zerbitzuak jasotzen ditugu: dirulaguntzen inguruko berriak edota lan eskaintzak pertsonen kontratazio-rako. Bestetik enpresak ditugun behar amankomunei erantzuteko elkarlaneko proiektuak garatzeko aukera ematen digu aditu eta elkartruke ikasketa prozesuen bidez.

Pertsonalki, enpresa ordezkarien artean sortu den konfiantzazko harreman sarea oso inportantea izaten ari da elkarlana bultzatzeko. Bailara ikuspegitik berriz, IB Sareak, enpresen eta eremu desberdinen artean elkarlana sustatzen ari da egitasmo berriak bultzatuz.

Javier Blázquez
Gerente de Urolako Industrialdea

Aunque los datos de empleo son buenos...

"LA INCERTIDUMBRE HA RALENTIZADO LA INVERSIÓN DE LA PEQUEÑA EMPRESA"

Urolako Industrialdeak dituen datuen arabera, Azkoitiko industrialdeetan dauden 165 pabilioietatik, zazpi bakarrik daude aktibitaterik gabe. Okupazio maila oso altua da ia denetan. Alabaina, egungo ziurgabetasunak enpresa txikien inbertsiorako ausardia eta intentzioa ahuldu egin ditu. Trakzio-enpresek inbertitzen jarraitzen dute, eta partzela eskaria mantendu egin da azken urteetan, baina pabilioi eskaera apala da.

A pesar de la baja tasa de desempleo y el dinamismo del sector industrial, la pequeña y mediana empresa "tiene miedo" a nuevas inversiones, según explica el gerente de Urolako Industrialdea, Javier Blázquez.

Oinartxo, en Ugarte industrialdea, fue inaugurado en 2010, pero hay todavía pabellones y oficinas sin ocupar. ¿Por qué?

Ha habido poca inversión de la pequeña y mediana empresa en estos últimos años. La demanda existente es de grandes parcelas que es lo que necesitan las empresas tractoras como pueden ser Xubi, Ibarmia o Juaristi. Son las grandes las que están invirtiendo. El resto tiene mucho miedo. Hay mucha incertidumbre y tenemos la situación sanitaria que tenemos. Si a todo ello añadimos la falta de chips, el encarecimiento de las materias primas y de la electricidad, pues la mayoría prefiere quedarse como está. Si no, la empresa en cuestión tiene que estar muy necesitada y decir o crezco y muero de éxito, o aquí no puedo seguir.

Según los datos de Urolako Industrialdea la ocupación en casi todos los polígonos es alta.

Así es. Hicimos un estudio en 2019. En los polígonos de Azkoitia hay 152 pabellones ocupados y solo siete sin actividad. Los niveles de ocupación son muy altos excepto en Ugarte, en la zona de Oinartxo donde se localizan prácticamente el 100% de los pabellones no ocupados, así como oficinas. Claro, comprar un pabellón es como comprar una casa. ¿Cuántas veces en la vida compras una casa? Haces una inversión una o dos veces en la vida. Las parcelas, en cambio, están vendidas. Las adquirieron Grupo Serbitzu, Sistemas Esselle y Grupo Xubi.

¿Siempre ha habido más demanda de parcelas que de pabellones?

No, no siempre ha sido así. Se hicieron pabellones porque la mayoría de las empresas son pequeñas o de tamaño medio y había mucho dinamismo. Según el estudio, antes citado, en el momento en el que se hizo, en 2019, solo dos empresas manifestaron necesidad de espacio a corto plazo; 20 afirmaron precisar más espacio a medio plazo y cinco señalaron que tendrían necesidades de ampliación a largo plazo.

En comparación con otras comarcas, ¿qué valoración hace?

La situación es parecida en toda Gipuzkoa y también en Euskadi. En Gipuzkoa está muy fuerte la zona del Bidasoa. Hay muchísimo dinamismo.

Urolako Industrialdeko gerente Javier Blázquez eta Julio Pastrian

Oinartxon hutsik dau-de eraikitako 14.839,92 m² pabilioi eta 3.378,82 m² bulego

Azkoitia biztanleko lursail industrial publiko gehien duen herrietako bat da

Udala Izarre-Jandaloko eremua ari da prestatzen industria lurra izateko

118 enpresa daude Azkoitiko industrialdee-tan. Ugarten 59; Umansoron 6; Juin Txikin 22; Juinen 11; Baste-rretxen 4; Txer-loian 8; Insaustin 3 eta Basarten 5. 2.000 lanpostu-ren bueltan dabiltza

Antes de construir, ya tienes todo colocado.

¿Sigue siendo Azkoitia uno de los municipios con más metros cuadrados por habitante de suelo industrial público?

Diría que sí. Azkoitia tiene 96.914,83m2 de suelo público. Es el paradigma de los Industrialdeak de Euskadi. Ahora el Ayuntamiento está tramitando la zona de Izarre-Jandalo y si llegara Sprilur a gestionarla, pues seguiría en la misma línea.

¿Qué criterios sigue Sprilur a la hora de comprar terreno y con qué fin lo hace?

Sprilur entra donde no entra la parte privada. El objetivo es optimizar el suelo. Es caro construir por la propia orografía y porque el suelo es escaso. Donde ahora está Oinartxo, por ejemplo, había un vertedero. Buscamos una rentabilidad social, no económica, y los pabellones se venden a un precio con muy poco margen. También primamos la inversión y el empleo. Si hay inversión y se crea empleo, la rueda se mueve.

¿Cuáles son las ventajas de comprar un pabellón a Sprilur?

La calidad de construcción y el cumplimiento de todas las normativas ambientales. Además, no se piden avales, solo se mira el proyecto industrial. La desventaja, en el caso de los pabellones de Oinartxo, es que no están habilitados. Al principio, se hacia una inversión media, pero se encarecía y en la mayoría de los casos, no servía para la nueva actividad. Por ello, están vacíos y se adaptan dependiendo de las necesidades de cada negocio. Realmente estamos para ayudar.

Nora Rubio
Hezitzailea

Urri hasieratik martxan dago Adinekoentzat Eguneko Arreta Zerbitzua Kultur Etxean, Plaza Ondo Jubilatu Elkarteak egoitza duen tokian, hain zuzen. Zerbitzuak 15 plaza ditu, eta momentuz, 9 daude beteta. Nora Rubio dute bidelagun, eta lehen hilabeteetako balorazioaz berari galdedu diogu.

"DENBORA ASKO ERAMATEN DUTE BAKARRIK ETA HIRU GOIZ OKUPATUTA IZATEA GARRANTZITSUA DA"

Hiru hilabete pasa dira zerbitzua martxan jarri zenetik. Zer nolako balorazioa egiten duzu?

Oso balorazio positiboa egiten dut. Ez nuen uste denok hain gustura egongo ginenik. Erabiltzaileak 65 urtetik gorako azkoitiarrak dira, eta zerbitzu honen helburua da ahalik eta denbora luzeenean euren etxeetan egon ahal izateko erraztasunak edo baliabideak eskaintzea.

Astean hirutan elkartzen zarete. Nola antolatzen dituzue saioak?

Astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan biltzen gara 10:00etatik 12:30era.

Lehenengo solasaldi txiki bat izaten dugu, eskelak komentatzea gustatzen zaie, herriko gora-beherak, telebistan entzundako berriren bat, biloben konturen bat.. gaia ez da lotuta egoten, bakoitzak nahi duenaz hitz egiten du. Astean bitan gimnasia egiten dugu eta beste egun batean erlaxazioa eta arnasketa ariketak egiten ditugu. Hori lehenengo zatian. Bigarrengoan, memoria, lengoaia eta arreta lantzeko ariketak egiten ditugu, hitz-jokoak, e.a.

Gustura ikusten dituzu parte-hartzaileak?

Bai. Elkarrekin oso ondo konpontzen dira. Asko eskertzen dute hiru goiz okupatuta izatea, zeren gogorra da etxean hainbeste ordu bakarrik egotea. Hona etortzen ez diren goizetan, gainera, hurrengo egunean besteei zer kontatuko dien pentsatzen egoten dira. Elkarbizitza eta sozializazioa oso garrantzitsuak dira.

Gehiengoa bakarrik bizi da, ezta?

Hori da, eta nahi dena da egoera hori ahalik eta gehien luzatzea. Ondoen geure etxean gaude, eta ez da erabaki erraza, adibidez, seme-alaben etxera bizitzera joatea. Erabiltzaile gehienak bakarrik bizi dira, %90 esango nuke.

Asko hitz egiten dugu bakardadeaz, asko komentatzen dute. Seme-alabek euren bizitza daukate. Eta lanean daude. Nahiz eta astean bitan bisitan joan edo asteburuetan, gutxi da, zeren egunak 24 ordu ditu. Bakardadea kezka nagusietakoa da.

Bitxia da erabiltzaile guztiak emakumezkoak izatea. Zergatik gertatzen dela uste duzu?

Nire teoria da emakumezkoak gehiago bizi garela eta etxean bakarrik egoteko ere gaitasun gehiago daukagula. Gizonezkoak askotan seme-alaben etxera errazago joaten dira.

Asteko hiru saioez gain, euren artean planik egiten dute kanpoan?

Uste dut oraindik hemendik kanpo planik ez dutela egiten. Elkarren ondoan bizi direnak batera joaten dira etxera, baina planik oraindik ez. Ideala izango litzateke.

Datozen hilabeteetarako ze asmo dituzue?

Eguraldi ona egiten duenean paseatzera aterako gara. Ni Mendarokoa naiz eta aitzakia horrekin, herria erakusteko eskatuko diet. Eta erakusketaren bat zabaltzen dutenean-eta, intentzioa daukagu ikustera joateko.

Zerbitzua jaso nahi duenak zer egin behar du?

Udaletxean, Gizarte Ongizate sailean egin behar du eskaera.

Adinekoei bideratuta, badaude ekimen politak, Pasira, Kirol Orientazio Zerbitzua... baina ez dira denak animatzen, ezta?

Beldurrak dituzte. Uste dute ez direla hau edo hura egiteko gai izango. Eta inor ez da ezertara behartzen. Bakoitzari ahal duena eskatzen zaio.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA 85 GIZON ETA EMAKUMEK JASOTZEN DUTE

Azkoitian 65 urtetik gorako 1274 emakume eta1.051 gizonezko bizi dira. 2.325 lagun guztira. Adinak aurrera egin ahala, gero eta gehiago dira etxez etxeko laguntza zerbitzua behar dutenak eta jasotzen dutenak.

Azken datuen arabera, Azkoitian 85 onuradunek jaso dute etxez etxeko laguntza. Haietatik emakumezkoak 61 dira, eta gizonezkoak, 24. Batez besteko adina, berriz, 78,77koa da.

Zerbitzua jasotzen dutenen artean 65ek, %76,47k alegia, maila ezberdinetako menpekotasuna dute eta zerbitzuaren tipologia ere bakoitzaren beharretara egokitzen da. %43,53ak etxeko garbiketarako behar du laguntza, %23,53 zaintza pertsonalerako, eta %32,94k bietarako.

Maiztasuna

Zerbitzuaren maiztasunari dagokionez, gehientsuenek astean sei eta zortzi ordu bitarteko laguntza jasotzen dute.

Zein da etxez etxeko zerbitzua jasotzen dutenen profila

Etxez etxeko zerbitzua jasotzeko, aurrez Udaleko Gizarte Zerbitzuek balorazioa egiten dute eta eskatzaileak laguntza behar duela kontsideratu. Onuradunak izan daitezke:

- Menpekotasuna edo desgaitasuna duten 65 urtetik gorako pertsonak.
- Bakarrik edo beste pertsona batekin bizi direnak eta laguntza behar dutenak osasun edo egoera pertsonalagatik. Edota senitartekoekin bizi arren, laguntza pertsonala behar dutenak desgaitasunagatik, lanagatik edota bizikidetasun arazoengatik.
- Ebakuntza edo interbentzio terapeutiko baten ondorioz, etxez etxeko laguntza behar dutenak.
- Onuradunak izan daitezke, halaber, besteak beste, adin txikikoak edota gaixotasun sendaezinak dituztenak.

Janire Igoa
Gizarte Ongizateko zinegotzia

"2022ko udal aurrekontuetan, Etxez Etxeko zaintza bermatzeko diru-partida %9,12 igo da. Etxez Etxeko laguntza zerbitzuaz gain, farmazia zerbitzua, pertsona zaintzaileentzat laguntza, hirugarren adinekoek suteak detektatzeko sistemaren kostua edota hauskortasun programa sartzen dira, besteak beste".

SAN MARTIN AUZOKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO LEHEN URRATSA



Udalak San Martin auzoko irisgarritasun arazoei soluziorik hoberena nola eman jakiteko azterlana egin du. Berriki aurkeztu zaie bizilagunei lanketa. Lehenesten den proposamenak San Martingo biztanleei ez ezik, Altamirakoei ere mesede egiten die.

San Martingo irisgarritasunaren inguruko azterlana burutzeko, auzotarrek gehien erabiltzen dituzten ibilbideak aztertu dira, eta bakoitzak dituen abantailak eta desabantailak. LKS ingeniaritza - orain Krean dena - enpresa arduratu da azterlanaz, eta hainbat arrazoi tarteko, dauden aukeren artean bat lehenetsi du. Edonola ere, egindako planteamenduak ideia edo proposamen gisa hartu behar dira, oraindik ez delako erabakirik hartu. Egin den azterketa abiapuntu bat da.

Egokien ikusten den alternatiba da Balda kalea, Rikardo Otaño kalea eta Beidazar kalea lotuko lituzkeen hiru mailatako igogailu bat ipintzea. "Proposamen horrekin maila bat gehiago irabazten da, eta Altamirako bizilagunentzat ere mesedegarria delako lehenetsi dugu", dio azterlana egin duen Xabier Gorrotxategi ingeniariak.

LOS SISTEMAS DE DETECCIÓN Y LAS OBRAS DE MEJORA LOGRAN REDUCIR AL MÍNIMO LAS FUGAS DE AGUA

Gracias al convenio entre Ayuntamiento y el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, desde 2009 se han invertido en Azkoitia 1.777.000 euros en la reforma de redes de saneamiento y abastecimiento de agua.

Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak 2008an sinatu zuten uraren kudeaketa integralaren inguruko akordioa, eta 2019an berritu zen hitzarmena beste hamar urtetarako. Hitzarmenetan jasotakoaren arabera, Ur Kontsortzioak azpiegituren hobekuntzan inbertsioak egiteko konpromisoa du eta horretan dihardu 2009tik. Ordutik gaur arte, 1.777.000 euro inbertitu ditu herrian.

Ur Kontsortzioak une oro kontrolatuta ditu sareko kontsumoak, horretarako teknologia duelako, eta horrek ur matxurak momentuan detektatzeko aukera ahalbidetzen du. Horrek guztiak, sarearen errendimendua %94,24raino igotzen lagundu du.

Inbertsioak

2019an itxitako akordioaren arabera, 2029ra bitartean, hau da, Udalarekin duen hitzarmena indarrean dagoen epealdian, Ur Kontsortzioak 1.281.980 euro inbertituko ditu. Urtez urte, bi erakundeek egingo diren inbertsioak zehazten dituzte eta jada erabakita dituzte aurtengo eta datorren urteko esku-hartzeak.

Floreaga eta Atxabaleta auzoak eta Aizkibel kalea

Aurtengo urterako aurreikusitako inbertsioen baitan, asmoa da Floreaga eta Atxabaleta auzoetan identifikatuta dauden saneamendu-sareko isurketak jasotzea eta Aizkibel kalean, 13 eta

Gomendatzen ez diren alternatibak

» Tomas Larrazpuru aldean

Tomas Larrazpuru inguruan esku-hartzea ez da egokitzat hartzen, ez delako irtenbiderik ikusten. Besteak beste, ezkutuan geratzen delako eta segurtasun eta genero ikuspegitik ez dituelako baldintza egokiak bermatzen.

Bestetik, ez da bizilagun kontzentrazio handieneko puntua, eta beraz, erabilgarritasunari begira, auzotar gutxiagorentzat izango litzateke lagungarria.

» Egun eskailerak dauden tokian

San Martin erdian, gaur egun eskailerak dauden tokian, igogailuak jartzea ez da soluzioa egokia ikusten. Izan ere, igogailuak ipini arren, igogailuei eskailerak jarri beharko litzaizkieke eta hori ahalbidetzeko, ez dago nahikoa toki.

Las escaleras mecánicas están descartadas porque no cumplen con los criterios de accesibilidad universal.

Auzotarrek Aita Madinabeitia plazan har dezakete igogailua Balda kalera iristeko. Hara iritsitakoan, Altamira alderantz jo eta proposatutako igogailu hartu ahalko lukete Rikardo Otañora heltzeko edota Beidazar kalera jaisteko. Rikardo Otaño kaletik San Martin goikaldera sarrera irisgarriagoa egiteko arranpak jarriko lirateke.

El Ayuntamiento ha realizado un estudio de alternativas para el barrio de San Martín, estudio que ha sido presentado ya a las vecinas y vecinos del lugar.

La propuesta preferente contempla la construcción de un ascensor con tres niveles de parada en:

- Balda kalea, a la que se puede acceder hoy en día desde Aita Madinabeitia plaza en ascensor.
- Rikardo Otaño kalea.
- Beidazar kalea, a la altura de la intersección de Bizenta Mogel kalea.

Una de las mayores ventajas de la propuesta que se ha priorizado es que también favorece al barrio de Altamira.

21 zenbakien arteko sareak aldatzea.

2023an, berriz, Bizkargi, Julio Urkixo eta Trino Uria kaleetako hornikuntza eta saneamendu sareak berrituko dira, egindako plangintzaren arabera.

Azken urteetan inbertsio handiak egin dira bai ur horniduran eta bai saneamendu sareetan. Ur hornidurari dagokionez hobekuntzak egin dira Santa Klaran, San Martinen, Altzibarren, Txalonerrekan eta Bizkargi kalean.

Saneamendu sareari dagokionez, esku-hartzeak izan dira Txerloian, Floreagan, Altzibarren, Ipintzan edota Txalonerrekan. Azpiegiturak berritu dira hainbat kasutan eta isurketak jasotzea lortu da.

El rendimiento de la red es del 94,24% debido a la rápida detección de fugas y de consumo no controlados.

2022KO AURREKONTUEN INGURUAN, ZEIN DA ZUEN BALORAZIOA?

EAJ-PNV

Aurrekontuak oinak lurrean ditugula, diru publikoa kudeatzeak eskatzen duen ardurarekin, eta herritarren behar eta nahiekiko errespetu osoarekin egin beharrekoak dira, eta horretan saiatu gara.

Zenbakiek ez dute tranparik. Udalak diru-kopuru bat du, eta horretxek jartzen die ametsei muga. Gauza bat nahi dena, egingo genukeena, da, eta bestea, benetan egin daitekeena. Egin daitekeen horren barruan, besteak beste, gizarte ongizatea, euskara edota ingurumena babestea eta indartzea da gure helburua. Alegia, ahalik eta kudeaketa txukunena eta eraginkorrena egitea, herritarren beharrei, eta herri gisa ditugun erronkei eta ardurei erantzuteko.

Udal Gobernuak zirriborro bat lantzen du abiapuntu gisa, eta beste alderdiei aurkeztu ostean, haien ekarpenak jaso eta aztertzen ditu. Aurten ere horrela egin dugu, eta alderdion arteko negoziaketek eman dute bere emaitza. Guztion artean egindako aurrekontuak dira, eta alderdi guztien borondatearen isla. Puntu guzti-guztietan ezinezkoa izan da akordioa lortzea, baina ez dugu uste hori aitzakia moduan erabili daitekeenik aurrekontuetan baiezkoa ukatzeko, prozesua hasieratik amaierara ikusita.

2022ko aurrekontuek herri hobeago bat egingo dute. Ziur.

EH BILDU

Sartu berri garen urteko aurrekontuak EH Bildurentzat ez dira onenak. Hala ere, eskertu egiten dugu Udal Gobernuak erakutsitako negoziaziorako prestutasuna eta jarrera irekia. Negoziazio horren ondorioz uste dugu aurrekontua hobetu egin dela lehenengo proposamenetik eta horregatik eman zion pasa den abenduan abstentzioa EH Bilduk 2022. Urteko aurrekontu proiektuari.

EH Bilduk lortutako akordioaren ondorioz azkoitiarren bizitzak hobetzeko neurriak hartuko direla uste dugu urte honetan, lortutako akordioaren gainean egongo gara urte honetan zehar berau betetzen dela egiaztatzeko.

Gehiago egiteko aukera zegoen baina ezin izan dugu erabateko akordiorik lortu eta horregatik ez ditugu babestu Udal aurrekontuak. Hala ere lanean jarraituko dugu herritarrak ardatz izango dituen politikak garatzeko Azkoitian.

PSE-EE

2021a urte zaila izan da Covid pandemiagatik, eta 2022an bere ondorioei aurre egiten eta okerren pasatzen ari direnei laguntzen jarraitu behar dugu. Hori dela eta, gobernu-taldea osatzen dugun alderdiok 2022rako aurrekontuak, osasun-krisiari eta susperraldi ekonomikoari aurre egiteko egin ditugu. Gizarte Zerbitzuen Sailaren aurrekontua, sozialistok zuzentzen duguna, % 6,18 handitu da aurreko urtearen aldean. Azkoitiko PSE-EEk gizarte arloarekin eta gure herriko pertsona ahulenekin duen konpromisoaren isla da. Beste sail batzuetan ere ekarpenak egin ditugu, adibidez; haur-parkeak mantentzeko edo altzari berriak erosteko partidak handitzea, komun publiko bat eraikitzea, txakurrentzako parke bat sortzea, Gazteria Plan bat egitea gazteen beharrei erantzuten laguntzeko, edo jarduera-gida bat egitea, genero-indarkeria kasuren bat ikusten badugu.Aurrekontu berri honek Azkoitia hobetzen laguntzea espero dugu.

El 2021 ha sido un año difícil por la pandemia del Covid y en 2022 tenemos que seguir haciendo frente a sus consecuencias y ayudando a quienes peor lo están pasando. Por ese motivo, los partidos que ostentamos el equipo de gobierno hemos elaborado unos presupuestos para 2022 con la intención de hacer frente a la crisis sanitaria y a la recuperación económica. El presupuesto del departamento de Servicios Sociales, que dirigimos los socialistas, se ha incrementado un 6,18% respecto al año anterior. Es un reflejo del compromiso del PSE-EE de Azkoitia con lo social y con las personas más vulnerables de nuestro pueblo. Pero también hemos realizado aportaciones en otros departamentos, como el incremento de la partida de mantenimiento de parques infantiles o adquisición de nuevo mobiliario, la instalación de un baño público, creación de un parque para perros, la elaboración de un Plan de Juventud que ayude a dar solución a sus necesidades o una guía de actuación en caso de que presenciemos un caso de violencia de género.

Esperamos que este nuevo presupuesto ayude a mejorar Azkoitia

AZKOITIA BAI

Beti bezala herritarra entzuten saiatu gara, Herrilab +700 ekimena izan du gure taldeak ardatz nagusi eta herritarren parte hartzeak garbi utzi digu norantz bideratu gure herria eta iparrorratz nagusiena herriko talde eta bolontarioak izan dira. Maxixatzen, Urola Bizirik, Egoitza kalera, Eguzki taldea (Gorka Alberdi), Floreaga auzokoak, Instalakuntza Duinak Orain, azokara etortzen diren baserritarrak, ... Talde hauen lana eskertu beharra dago, ikasi, eta nola ez, aintzakotzat hartu.

Floregako igogailuak eta igerileku berria bideratuta daude, euskara eta azokako partidak udal gobernuak jarrita zituen, baina beste asko ere adostu ditugu: ingurumen mahaia osatzea, eskudel/barandila azpietako saretxoen partida hirukoiztea, ibai-erreken garbitzea, energia garbien azterketa bideratzea, elkarguneko areto nagusiaren itxuraldatze azterketa eta baita integrazio eta berdintasunean ekimenak zehaztu ere, gure parte hartzea eskainiz behar izan ezkero.

Baina azken unean, benetako akordiora ezin iritsi. Egia esan pena handia eman digu, baina gaur egun egoitzako arazoak konpontzeko beste pauso bat ematea ezinbestekoa ikusten dugu eta herritarrek ere horrela azaldu digute. Asko korapilatzen ari da dena eta berehala bideratzeko pausoak eman beharra dago.

Ana Azkoitia
Ogasun zinegotzia

"HERRITARREK EGINDAKO HAUSNARKETAN ETA ALDERDION ARTEKO ADOSTASUNEAN OINARRITUTAKO AURREKONTUAK DIRA"

El Ayuntamiento de Azkoitia contará en 2022 con un presupuesto de 16,3 millones de euros, un 7,38% más que el año pasado. Urbanismo, Servicios sociales, Medio Ambiente y Euskera son algunas de las áreas a las que más esfuerzo se ha destinado junto a las inversiones. El presupuesto consolidado, que engloba Zubiaurre-Elkargunea, la Residencia San José y Azkoitia Lantzen, asciende a 17,2 millones de euros.

Zer azpimarratuko zenuke 2022ko udal aurrekontuen inguruan?

Herritarrekin entzute prozesu bat burutu dugu, hausnarketa amankomun bat egin da Herrilab+700 prozesuaren baitan, eta alderdi guztiok izan dugu aukera herritarren, elkarteen eta eragileen nahiak eta beharrak modu zuzenean ezagutzeko. Hor jasotako ekarpen eta eskariak aintzat hartzen saiatu gara ahal den neurrian. Bestetik, lau alderdiok adostasunak lortzeko prestutasuna erakutsi dugu. Bi bide horietatik jasotako eskaerei eta beharrei zenbakiak jarri eta erantzuten saiatu gara.

Adibidez?

Ingurumen Mahaia osatuko dugu ingurumenari lotutako gaiak lantzeko. Gaur egun ere harremana etengabea da ingurumen eragileekin, baina lanketa horri nolabait forma emateak eraginkortu egingo du. Horri lotuta, ibaiak garbitzeko diru-partida handitu dugu.

Euskarari dagokionez ere, euskara ikasteko dirulaguntzak %100era igo ditugu eta Maxixatzen Euskara Elkarteari 11.000 euro emango dizkiogu euskararen dinamizazio lanetarako. Kontuan hartu behar da inbertsioetarako dugun tartea kenduta, gainerakoan, udalaren aurrekontua dugun bizi-kalitatea, dirulaguntzak eta zerbitzuak mantentzera bideratzen dela. Gero eta eskaintza handiagoa dugu zerbitzuetan eta abian jartzen diren egitasmoak gero eta gehiago dira esparru guztietan. Horrek guztiak kostu bat du eta aurrekontuetan islatzen da.

Inbertsioetarako 1.496.960,69 euro izango ditu Udalak. Zertara bideratuko du nagusiki diru hori?

Diru-partida potoloena LED argiak jartzeko erabiliko da. Horretaz gain, Azoka Plaza txukuntzeko ere ahalegin ekonomiko bat egitera goaz. Azkoitiko azoka Gipuzkoako Azoken Sarean dago eta azoka biziberritzeko plan integrala aurrera eramateko asmoz sortu den lan mahaia ere eratuta dago, beraz, beste urrats bat izango da. Eta noski, jarraitu beharra dago bideak asfaltatzen, baserri bideak konpontzen, e.a.

Aurrekontuak egitea matematika da. Batean jartzeko bestean kendu egin behar da. Inbertsioetarako eta ekimen berriak martxan jartzeko ahalmena mugatua da, besteak beste, zerbitzu berriak sortzen ditugulako, eta zerbitzu horiek sortzen direnetik urtero kostu bat dute. Horren adibide da, esaterako, Gizarte Ongizateak sustatuta martxan jarri berri dugun Adinekoen Eguneko Arreta Zerbitzua.

"Udalak nahi duenerako badu dirua", sarri entzun ohi da. Zer erantzungo zenieke hori uste dutenei?

Aurrekontuak lantzen hasten naizenean nire ondora etortzeko gonbidapena luzatuko nieke.

	2020	2021
Ogasun eta pertsonala	6.255.531,1	6.462.268,56
Hirigintza	541.100	1.154.960,69
Kirolak eta festak	1.179.900	1.187.000
Kultura	1.130.150	1.167.820
Hezkuntza eta euskara	342.255	354.755
Gizarte ongizate	1.254.455	1.336.925
Alkatetza	123.000	133.000
Lan eta zerbitzuak	2.270.300	2.293.200
Udaltzaingoa	45.000	95.000
Ingurumena	1.689.302	1.752.017,36
Sustapen ekonomikoa	413.506,86	432.753,39

ARGIAK

AURREZTE ENERGETIKOAREN BIDEAN

Urtarrilaren amaieran edo otsailean hasiko dira Azkoitian luminariak aldatzen. Guztira 3.280 luminaria daude eta 1.963 unitate aldatuko dira, ekingo zaion fasean. Helburua: aurrezte energetikoa bermatzea eta kaleko gehiegizko argiztatzeak sortzen duen kutsadura luminikoa saihestea. Azterketen arabera, %82ko aurrezte energetikoa lortuko da.

Susana Malon fisikoa eta astronomoa da, eta argi-kutsaduran aditua. LED argien inguruan galdetu diogu.

Zeintzuk dira LED teknologiaren abantailak?

Nazio Batuen Erakundeak garapen iraunkorrerako ezarritako helburuak betetzen laguntzen du, eraginkortasun energetikoaz ari baikara. Teknologia aldatze hutsa berrikuntza garrantzitsua da. Ulertu behar da, ordea, argiztatzeko modua ere aldatu egiten dela. Orain dituzuen luminariek %25-30eko goi fluxu hemisferikoa izango dute, erraz. Zer esan nahi du horrek? Argiaren %25-30 zerurantz eta fatxadetara joaten dela, alegia, argi-kutsadura sortzen dela. LED argiekin fluxua beherantz zuzentzen da eta goiko fluxu hemisferikoa hutsa edo oso-oso murritza izango da.

Argi gutxiago dagoenaren sentsazioa eragin dezake?

Hasieran jendeari iruditzen zaio argi gutxiago dagoela eta okerrago ikusten dela. Ez da horrela. Argiztapen maila legeriaren baitan egon behar du, legeak agintzen du eta bete egin behar da. Argiteria publikoak kalea argiztatu behar du, ez fatxadak inbaditu.

Abantaila handiak ditu LED teknologiak. Hori bai, egia da kolorearen tenperatura kontrolatu beharra dagoela. Zenbat eta epelagoa izan, hobe, kutsadura luminikoa murritzagoa izango baita. Argi-iturria zenbat eta zuriagoa izan, orduan eta gehiago kutsatuko du.

Beti kutsadura zaratarekin, isuriekin, zaborrarekin edo gasekin lotzen dugu, baina sekula ez gehiegizko argiteriarekin.

Argiak beti justifikatuta egon behar du zure ustez, ezta?

Araudiak esaten dizu zenbateraino argiztatu. Garrantzitsua dena da argiztapen proiektua ondo egitea eta baita, luminariatan erabiliko diren optiken aukeraketa ere. Ez da berdina parke bat argiztatzea edo kale estu bat. Horregatik, argi-azterketa teknikoak oso dira inportanteak. Uniformetasuna bermatzen dute.

Laborategian entseguak egindakoan ere adi ibili behar da. Luminaria bat laborategian probatu eta eman dezake %5eko goiko fluxu hemisferikoa, baina luminaria bera kalean inklinatuta jartzen bada, kutsatu egingo du. Horregatik, instalazioa ere oso kontuan hartu beharrekoa da.

Zer nolako malgutasuna du araudiak argiztapen mailarik dagokionez?

2008ko 18/90 errege-dekretua dago indarrean eta dio argiztapenak kale bakoitzari ematen zaion erabilpenaren araberakoa izan behar duela. Ez da berdina, oinezkoentzat soilik den kalea izan, bidegorria, espaloiak edota semaforoak dituena, bihurguneak... hori guztia kontuan hartuta, erreferentziazko argiztapen maila errespetatu behar da eta soilik %20an gainditu daiteke.

Azterketen arabera, %82ko aurrezte energetikoa lortuko du Azkoitiak.

Bai, normalena da %80aren bueltan ibiltzea. LED argiek, gainera, "driver" bat daramate eta posible da, esaterako, argiak piztea ilunabarrarekin batera edota piztu eta handik pare bat ordura fluxua murrizten joatea... Fluxua erregulatu egiten da eta horrek izugarrizko eragina du aurrezte energetikoan.

"Cuando oímos la palabra contaminación la asociamos al ruido, vertidos, basura, emisión de gases contaminantes, pero nunca al exceso de iluminación".

• • • •

"La tecnología LED supone un nuevo concepto de alumbrado. Las luminarias de ahora emiten un 30% de flujo hemisférico superior. ¿Qué quiere decir eso? Que un 30% de luz se escapa al cielo y a las fachadas. Con las luminarias LED el flujo de luz va hacia abajo y la gente interpreta que hay menos luz y que se ve peor, pero el alumbrado público tiene que iluminar la calle, no invadir las fachadas".

Azkoitia, hacia la sostenibilidad energética

01
Plazo de las obras: **8 meses**

02
Ahorro energético de hasta un **82%**

03
Instalación de **1.963 luminarias LED** de las 3.280 existentes

04
Eliminación de la contaminación lumínica

05
Actuación en **22 centros de mando** del alumbrado público

Sexismoa

Egunerokoan, bizitzako eremu desberdinetan –etxean, kalean, eskolan, lanean, aisialdian, kuadrilan, etab.– emakumeek jasaten dituzten eta normalizatuak dauden diskriminazio egoerak dira.

Etxean

- Etxeko lanetan "laguntzen" duela esatea gizonak eta aspiradore bat oparitzea emazteari bere urtebetetzean.
- Ama kafea hartzera joatea lagunekin eta aitak umeak ezin dituela deskuidatu esatea.
- Andramaixetan amak orduak ematea familiarentzako bazkari berezi bat prestatzen, eta aitak esatea berak antolatu duela, ideia berea izan balitz bezala.

Etxeko lan eta zaintzen ardura osoa etxeko kide guztiena da. Plater garbiak denentzat diren bezala, zikinak ere bai!

Aisialdian

- Neska gazte eta helduak taldean atera beharra, bakarrik babesgabe sentitzen direlako begirada eta komentario sexisten aurrean.
- Kirolean entrenatzeko baldintza okerragoak jartzea emakumeei: ordutegiak, materiala, etab.
- Bikotekide-ohi mutilak neskaren argazki intimo bat zabaltzea sare sozialetan haren baimenik gabe.

Emakumeekiko gutxiespena, gizonaren izana gainbaloratzen denean ematen da. Emakumeei errespetuzko tratua beti!

Kalean

- Emakume bati noiz izango den ama galdetzea. Emakumeen "erloju biologikoari" buruzko adierazpenak entzun behar izatea.
- Tabernetan garagardoa zuzenean gizonari zerbitzatzea eta kafea emakumeari.
- Norbaitek gidatzeko zailtasunak dituenean emakumea izango dela irain moduan aipatzea.

Aurreiritzi asko ditugunez, ez dugu errealitatea ongi pertzibitzen. Hautsi emakume eta gizonei esleitzen zaizkien rol tradizionalekin!

Lanean

- Lantokian gehiago baloratzea gizonezkoak eta lanpostu hobeak lortzeko erraztasun gehiago izatea.
- Bezeroek arduraduna emakumea dela ikusita, nagusiagatik galdetzea, arduradunaren lana ondo betetzeko gizonezkoa beharko balu bezala.
- Emakumeak izatea zaintza ardurak betetzeko baimenak eskatzen dituztenen gehiengoa (% 90a).

Emakumeen ideiak, ardurak eta soldatak ez dira gizonenak bezainbeste baloratzen. Laneko desberdintasunei aurre egin!

Gizarte osoari eragiten digu sexismoak eta egoera eraldatzeko **urratsak** eman behar ditugu:

1) Sexismoaren eraginaz **jabetu**
2) Jarrera sexistak **ez erreproduzitu**
3) Ematen badira, **eten**

Sexismoaren hariak eten!

¡Cortemos los hilos del sexismo!

Genero Indarkeriaren
aurkaku estatu-ituna

AZKOITIA Udala